
PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Erratzuko bunkerrak

Bunker hauek Erratzun daude,
Baztanen, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Baztan non dagoen ikus dezakezu.

Frankismoaren garaian frankistek
preso asko lan publikoetan
bortxazko lanak egitera behartu zituzten,
adibidez, errepideak, zubiak edo eraikinak egiteko.
Bortxazko lanak pertsona batek behartuta
eta dirurik jaso gabe egiten dituen lanak dira.

Frankistek bortxazko lanak
presoak umiliatzeko eta zigortzeko,
obrak merkeagoak izateko
eta frankismoaren pentsatzeko modua inposatzeko
erabiltzen zituzten.

Bortxazko lanak Errepublikanoei
haien bizitza frankismoaren Espainia Berrian

nolakoa izango zen erakusteko
erabiltzen zituzten ere.
Gogoratu Errepublikarrek
Gerra Zibila galdu zuten pertsonak zirela.

1939. eta 1958. urteen artean
frankistek Pirinioetako gotorlekua eraikitzeko
milaka preso bortxazko lanak egitera behartu zituzten.
Presoak oso egoera txarrean bizi ziren
eta frankisten aldetik indarkeria asko jasaten zuten.

Pirinioetako Gotorlekua
Espainia Frantziatik bereizteko harresi bat da.
Harresia bunker askoz osatuta dago.
Bunkerra etsaiaren erasoetatik babesteko
lurraren azpian egiten den obra da.

Pirinioetako Gotorlekuak
ia 500 kilometroko luzera du
eta Gipuzkoa eta Nafarroa artean
1.800 bunker baino gehiago ditu.

Pirinioetako Gotorlekuak Espainia Berria
Frantziatik sar zitezkeen
etsaiengandik defendatzeko balio zuen



Mapa honetan
marra beltz bat ikus dezakezu.
Pirinioetako Gotorlekua da.

1939 eta 1940 urteen artean frankistek
preso asko Erratzu inguruan
9 bunker eraikitzera behartu zituzten.
Bunker horiek Organización Errazu osatzen zuten.
Hau frankisten plano militarretan agertzen da.
Bunkerretatik gertu
barrakoiak ere eraiki zituzten.
Bertan bortxazko lanak egiten zituzten presoek
egoera oso txarretan lo egiten zuten.
Barrakoi bat txabola antzeko bat da.

Nafarroako Memoriaren Institutuak
Muga Gotortua Nafarroako Pirinioetan proiektua sortu zuen
Memoria Duten Eskolak programaren barruan.

Proiektu honek
Nafarroan dauden bunkerrak berreskuratzeko
eta horrela han gertatu zena gogoraraziko balio du.

2019ko abuztuan
3 bunker eta barrakoi bat garbitzeko
Nafarroako Gobernuak
gazteentzako boluntariotzako esparru bat antolatu zuen.
Boluntariotzar-horretan
hainbat herrialdetako 54 gaztek hartu zuten parte.

Hemen Erratzuko bunkerrak berreskuratzeko lanen
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/es/lugar-de-memoria/bunkeres-de-erratzu

Hemen Erratzuko bunkerren
argazkiak ikus ditzakezu:



